

Leherketa demografikoa: seigarren iraungipen masiboa

Demografia bi ahoko ezpata dela ez dago dudarik. Alde batetik, hartaz baliatzen gara gure herriaren eta gure gizartearen etorkizuna bermatzeko; beste alde batetik, espezie gisa iraungitzera garamatza. Eta paradoxikoa da; izan ere, gero eta gehiago izateko irrika horrek eramango baikaitu azkenean gero eta gutxiago izatera edo... are okerrago, erabat iraungitzera.

Kontrolik gabeko demografia primitibismo-seinale garbia da. Herri atzerakoi eta primitiboek bakarrik heltzen diote demografiari iltze gori bati bezala. Gainera, hori da emakumeak ugaltzeko "behi" gisa erabiltzea, herrialde baten modernizazioari begira eta emakumeak ahalduntzeari begira horrek berekin dakarren guztiarekin.

Beste alde batetik, demografia leherkorra gerra- eta txirotasun-iturria da, migrazio masiboak ekartzen ditu berekin eta, labur esanda, ez dio ekarpenik bat ere egiten herrien eta gizateriaren bilakaera positiboari. Entzun ondo: estatu bat zenbat eta atzerakoiago, primitiboago eta huts eginagoa izan, orduan eta gehiago tematzen da jaiotza-tasa sustatzen, nahiz eta horrek herrialdea primitibismo eta txirotasun endemikoko mantu baten pean lurperatuta utzi.

Zeintzuk dira jaiotza-tasa esajeratuki altuak dituzten herrialdeak? Hola, hitzetik hortzera, ziur denoi datozkigula burura: India, Bangladesh, Afganistan, Pakistan, Maroko, Somalia, Kongo, Egipto, Sudan, Irak, Saudi Arabia (gezurra dirudi, baina oso herrialde aberatsa izan arren, zortzi biztanletik bat txiroa da), Siria... Eta zer-nolako lotura dago herrialde horien guztien artean? Haien gerra etengabeak, haien txirotasuna, haien primitibismo sozial, politiko eta ekonomikoa, haien ezegonkortasuna, haien gehiegizko erlijiotasuna...

Orokorrean, nori gustatuko litzaioke herrialde horietako batean bizitzea? Inori ez.

Aldiz, herrialde horiei guztiei badirudi demografiak bost axola diela. Eredu hipertradizionaletan, eredu lotsagabekiro patriarkaletan ainguratuta jarraitzen dute. "Emakumea hanka hautsita eta etxean" da lelo nagusia;

zenbait eskolatan Korana baino ez omen dute irakasten (gizonezkoen kasuan; emakumezkoen, ezta hori ere), eta abar, eta abar.

Baina gainpopulazioaren arazoa ez da herrialde azpigaratuetara mugatzen. Baditugu herrialde aurreratuak, populazio ikaragarriak dituztenak, hala nola Estatu Batuak eta Txina. Eta Hego Amerikan Brasil dugu guztien buru. Baina Venezuela, Kolonbia eta Peru ere hor daude...

Gainera, zein herrialde dagoen gainpopulatuta erabakitzeke orduan, ez dugu biztanle-kopurua bakarrik kontuan hartu behar. Herrialde batek biztanle "gutxi" izan ditzake beste herrialde batekin alderatuta, baina hedadura txikiko herrialdea bada, herrialde gainpopulatua ere izan daiteke.

Oro har, herrialde batek bere biztanle guztiak elikatzeko eta duintasunez bizitzeko adina ez daukanean, herrialde hori gainpopulatuta dago. Kontrako zirkunstantzia batzuk gerta daitezke; adibidez, sumendi bat lehertzea orain arte aberatsa eta iraunkorra izan den eremu batean, eta horren ondorioz, pobrezian erori. Edota uholde, tsunami eta abarrekin ere gerta daiteke.

Baina, hondamendi naturalen kasuetan ere, gainpopulatuta ez dagoen eta buruaskia den herrialde batek askoz hobeto egingo du aurrera gainpopulazioaren ondorioz "touché" dagoen beste herrialde batek baino.

Lehengo egunean, afganiar familia baten argazkia ikusi nuen egunkari batean. 11 haur zenbatu nituen! Denak familia berekoak! Horiei gehitu behar gurasoak, aitona-amonak... Haien denak gaizki elikatuta eta gaizki jantzita. Hau da, ozta-ozta elika ditzakete bi seme-alaba, eta hala ere, umeak mundura ekartzen jarraitzen dute... dirua sobera izango balute bezala! Eta azkenean, noski, denak atzerrira. Familia horrek talibanengandik ihes egiten zuela uste dut. Baina, egia esan, familiaren kontzeptuari dagokionez, ez dut uste haien pentsamoldea eta talibanena oso ezberdinak direnik.

Giza portaera hauek animalien munduan ere ikusten ditugu: ugaltu, barreiatu, lurraldea zabaldu, klan berriak sortu eta zikloa behin eta berriro errepikatu. Eta horrela, noiz arte? Ba... lurraldea amaitzen zaie arte. Eta

zer gertatzen da orduan? Elkarren aurka hasten dira borrokatzen. Hil arte. Edo hil egiten dira baliabide-faltagatik.

Nik ez dut gizateriak, alde horretatik, animalien munduarekin antzik izatea nahi. Basa bizitzarako lekua egotea nahi dut, bai, baina horretarako, lehenik eta behin, garbi izan behar dugu zenbat leku behar duen gure espezieak. Eta ez da behar adina leku egongo ezta gure espeziearentzat ere, untxiak bezala ugaltzen jarraitzen badugu. Ildo horretan tematuz gero, gure lurraldean eta Lur planetan ditugun baliabide guztiak kontsumitzen amaituko dugu eta.

Estatu Batuetan 55 milioi txiro inguru daude. Baliteke gosez ez hiltzea, baina bai gaindosiz edo gaixotasun sendagarriez; eta baliteke buruko gaixotasun, etxe desegituratu eta delinkuentzia-indize erabat onartezinak pairatzea. Hori guztia demografia leherkorrarekin ere lotuta dago. Beraz, ez pentsa herrialde aberats batean bizitzeagatik dena konponduta dagoenik.

Gora familia ugariak!, oihukatu zuen herriko tontoak. Eta okerrena da beti dagoela txoriburuen koru bat zera erantzuteko prest: Gora!

Hamaika seme-alaba mundura ekarriz hutsune existentziala betetzen saiatzea aurrerantz eginiko ihesaldi bat baino ez da. Hutsune hori horrela ez da inoiz betetzen; aitzitik, sakonago bilakatzen da. Harik eta hondoa jo arte. Lau, bost, zortzi, hamar seme-alaba... Gero agintari "itzaltsu" bat agertuko da kondekorazioak banatzen eta zerua eta lurra hitz ematen, eta nola ez, "aberriak eskertuko dizue" esaten. Ez zaio asko inportako, beharrezkoa izanez gero, bere jendea gerraren hiltegiara eramatea. Eta horrela, presio demografikoa arindu. *Mort pour la patrie.*

Nigatik balitz, familia ugariak sustatzen dituzten estatuak eta instituzioak "erakunde terroristatzat" joko nituzke. Izan ere, kontrolik gabeko jaiotzasak dituzten herrialde askok indarkeria-arazo larriak jasaten dituzte, erraz asko egiazta dezakegunez: Kolonbia, Mexiko, Brasil, Siria, Irak, Sudan, Afganistan, Bangladesh (txirotasun endemikoaren paradigma), eta abar, eta abar. Maroko ere etorkin-esportatzaile handia da, eta gutxi balitz bezala, haietako asko adingabeak dira (zer espero daiteke tirano batek burdinazko eskuaz gobernatutako herrialde batengandik?).

Gainera, sarri askotan, erabateko analfabetismoan murgildutako herrialdeak izaten dira, Koranaz gain beste ezer ikasi ez duten erlijio-gizonek gobernatuak, non erlijioa zientziaren gainetik baitago (zientziaz bakarrik oroitzen dira azken teknologiako armak eskuratzeko, eta nuklearrak badira, hainbat hobe)...

Eta horrek guztiak, nola eragiten digu? Garbi dago nola eragiten digun: egun batean bai eta hurrengoan ere bai, milaka desesperatu iristen dira Europara gosetetik eta miseriatik ihesi, bizimodua hobetzea amets... gutxik lortuko badute ere. Haien herrialdeetako egonkortasunik ezak, ordea, azkenean herrialde guztiei eragiten die, argi eta garbi, domino batean bezala. Izan ere, denok dakigunez, mundu globalizatu batean bizi gara. Denok gaude itsasontzi berean.

Gaur egun, Europara iristen diren emigratzaile gehienak herrialde gainpopulatuetatik datoz, herrialde horiek ezin baitute euren biztanleria osoa elikatu. Eta, neurriak hartzen al dituzte? Demografia geldiarazteko kanpainak egiten al dituzte? Proiektu profesionalak sustatzen al dituzte emakumeen artean, borondatezko edo bortxazko ugalketaren basamortuan haiek baztertu beharrean? Sustatzen al dute antisorgailuen erabilera sexu-harremanetan? Ez, justu alderantziz.

Esan nahi dudana azken batean zera da: kontrolik gabeko demografiak herrialde guztiei eragiten diela, baita kontrolik gabeko demografiarik (teorikoki) ez daukagunoi ere. Laburbilduz, leherketa demografikoak gerrak, gosea, migrazio-uholdeak, zapalkuntza, langabezia, delinkuentzia, baliabideen suntsipena eta abar eta abar baino ez ditu ekartzen.

Gauza asko daude jokoan. Baina, batez ere, gure planeta ederra dago jokoan. Gaur egun, 7.8 bilioi lagun gara. 7.8 bilioi pertsona 7.800 milioi lagun dira. Eta ez nintzateke harrituko kopuru hori handituz joango balitz. Eta hala ez balitz, ez litzateke hala izango neurriak hartu ditugulako, Covid-19aren, gerren, goseteen, gaixotasunen eta abarren ondorioz baizik.

Munduan hamar biztanletik bat muturreko pobrezian bizi da. Hau da, 700 milioi lagun edo. Eta munduko biztanleriaren % 85 egunean 30 dolarrekin baino gutxiagorekin bizi da. Eta jarraitu behar al dugu haurrak mundura

ekartzen? Zertarako? Han-hemengo agintari ergelek jarrai dezaten harrokeria-plantak egiten, zeinek zakil handiagoa eduki?

Bestalde, kontrolik gabeko demografiari aurre egiteko, eman dezagun nire herrialdeak neurriak kontzienteki edo ez-kontzienteki hartu dituela. Eman dezagun ni bizi naizen herrialdeko gizonak eta emakumeak, familia-bizitza bat ez ezik, bizitza profesional eta sozial bat ere eduki nahi dutela. Eta orain, demagun aldameneko (edo hor nonbaiteko) herrialdean kontrako irizpideei jarraitzen dietela, hau da, "Hazi eta ugal zaitezte, anai-arrebok".

Bueno, eta aldameneko (edo hor nonbaiteko) herrialde horretan baliabideak agortzen zaizkienean, zer egin behar dut? Atea ireki behar al diet, neure herrialdera etor daitezten eta nire baliabideekin egin dezaten euren herrialdean egin duten gauza bera? Hemen ere, neure etxean, baliabide guztiak erabat agor ditzaten? Nire ustez, bada garaia herrialde bakoitzak bere erabakiak eta erantzukizunak bere gain hartzeko, bere sinesmenak eta bere planteamendu politiko, ekonomiko, sozial, erlijioso eta hezkuntza arlokoak bere gain hartzeko.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar biziraupen-kontu baten aurrean gaudela. Eta, halaber, ez dugu ahaztu behar arazoa ez datorrela kanpotik soil-soilik, arazoa barruan ere badaukagula. Herrialde batek milioika lagun baldin baditu langabezian ia modu iraunkorrean, herrialde horrek bere gain hartu ezin duen jaiotza-tasa duelako da, jaiotza-tasa jasangarria ez duelako da, alegia. Eta hori berdin-berdin ikus dezakegu Afrikan zein European, gure kontinente zaharrean arazo hau (teorian) neurri txikiagoan gertatzen bada ere.

Nik neure herrialdeko inori ez diot debekatuko nahi adina seme-alaba izaten. Hala ere, gizarteari bide ofizialetatik mezu bat transmitituko nioke, hauxe: gure familiak sortzeko orduan, izan gaitezen neurritsuak. Eta kanpotik etorri direnei, gure herrian abegi solidario eta eskuzabala topatu dutenei, bai, exijituko nieke euren jaiotza-tasak kontrolpean izatea. Hori egin ezik, zaplaztekoztat joko nuke, elkartasun-faltaren seinaleztat eta esker txarreko seinaleztat joko nuke.

Demografia kontrolpean izatea elkartasun-kontua da. Baliabideak denon artean banatu behar ditugu. Eta horretarako, zuhurrak eta solidarioak izan behar dugu zenbat seme-alaba nahi ditugun erabakitzeke orduan; baldin eta seme-alabarik nahi badugu, hori ere beste aukera bat da-eta: seme-alabarik ez izatea. Ez dut uste inor "estigmatizatu" behar dugunik aita edo ama izan nahi ez duelako edo bizimodu "tradizionaletik" aldendu nahi duelako.

Eta hasi naizen bezala amaitzera noa: "Leherketa demografikoa, seigarren iraungipen masiboa". Ez zait iruditzen izenburu gehiegizkoa denik. Aitzitik, leherketa demografikoa eta seigarren iraungipen masiboa elkarrekin lotzea arrazoizkoa dela uste dut. Leherketa demografikoak gosea eta pobrezia dakartza, gerrak eta suntsipena dakartza, gaixotasunak eta pandemiak errazago hedatzea dakar, eta aurrekaririk gabeko kutsadura eta baliabide-kontsumo jasanezina dakartza. Hori behin eta berriro ikusten dugu, mundu osoan. Herrialde bakoitzak bere demografiaren gaineko kontrola hartu behar du, bere jaiotza-tasaren gidaritza eta dagokion erantzukizuna hartu behar ditu bere gain. Ezin da besterik egin. Ezin da, benetan.